

# BALOREZKO PROPOSAMENA

Zerbitzuaren erabiltzaileak hezkuntzako ikasleak eta irakasleak dira. Zerbitzuak irakasleen irakaste eta ikasleen ikaste prozesua erraztea du helburu. Izan ere, proiektua oso baliagarria izan daiteke hezkuntzan. Aipatzekoa da gizakiak ikus-entzunezko materiala barneratzeko erraztasuna duela. Gainera, azken teknologiek irakaskuntza beste maila batera eramatea ahalbidetu dute. Kid3 proiektuak ikus-entzunezko bideo anitz eskaintzen ditu. Teknologiaren garapena baliatuz, testu bidezko materiala eskaini beharrean, ikus-entzunezko materiala eskaintzen dugu. Azpimarratzekoa da, irakasteko metodoa dela gure lehiakideengandik desberdintzen gaituen faktorea.

Honako ezaugarriak dira gure lehiakideengandik desberdintzen gaituztenak:

## BERRITASUNA

Kide proiektuak berrikuntza suposatzen du hezkuntzaren alorrean, izan ere, irakaskuntza eta teknologia bateratuz, irakasteko metodo desberdin bat eskaintzen dugu.

## LANA ERRAZTEA

Hasieran esan bezala, gure egitekoa irakasleen irakaste eta ikasleen ikaste prozesua erraztea da, horregatik, gure erabiltzaileei lana erraztea proiektuaren ezaugarrietako bat da.

## PERTSONALIZAZIOA

Irakasle eta ikasleen beharretara moldatzen da aplikazioa, izan ere, hainbat ikasgaien inguruko materiala eskaintzen du. Hori dela eta, erabiltzaileak behar duen gaia izango du eskuragarri, dela gizarte-zientzietako edota zientzietako ikasgaia.

## ERABILERRAZTASUNA

Diseinuarekin lotuta badago ere, ezaugarri hau proiektuaren beste oinarrietako bat dela esan beharra dago, izan ere, gure egitekoa zera da, erabiltzaileei laguntzea, eta horregatik, erabilerraza eta intuitiboa izan behar du aplikazioak.

## DISEINUA

Aplikazioaren diseinua lehiakideengandik desberdintzen gaituen faktoreetako bat da, bada, proiektuaren diseinu minimalistarekin beste ezaugarri batzuk lortzen ditugu, esaterako, erabilerraztasuna. Aplikazioak diseinu moderno, minimalista eta erabilerraza izango du.

## PREZIOA

Ikasketetan ekonomiak ez du traba izan behar, horregatik, erabiltzaileek ez dute zerbitzua erabiltzeagatik ordaindu behar, ikasten dauden zentroak arduratuko baitira aplikazioa ordaintzeaz. Dena dela, prezio egokiak ezarri ditugu sektore pribatu eta empresa pribatuentzat.

## ESKURAGARRITASUNA

Prezioa eta deskargatzeko erraztasuna dela medio, ikasi nahi duen pertsona ororentzat eskuragarri izango da aplikazioa, izan ere, mugikorrean edota ordenagailuan erraz eskuratu dezakete aplikazioa gure webgune edota Play Store eta App Storetik.

## IKASLEAK

Ikasleei dagokionez, Kideren helburua, ikasketetan interesa eta zailtasunak eduki ohi dituzten ikasleei, edukitzen dituzten zalantzak argitu eta interesa piztea da, aplikazioak eskaintzen dituen bideo desberdinei esker. Bezero hauek berritasuna, lana erraztea, pertsonalizazioa, eskuragarritasuna eta erabilerraztasuna bezalako ezaugarriak baloratzen dituzte.

## SEKTORE PUBLIKOA

Proiektua hezkuntzan oinarritzen da eta hortaz, sektore publikoa ezinbesteko bezeroa da. Izan ere, sektore publikoa izango da Kid3 zerbitzuaren bezero nagusia. Bezero hauek berritasuna, lana erraztea, pertsonalizazioa, eskuragarritasuna, prezioa eta erabilerraztasuna bezalako ezaugarriak baloratzen dituzte.

## ENPRESA PRIBATUAK

Enpresa pribatuak ere izango dira bezeroak. Hauek akademiak, kampusak naiz bestelako enpresak izan daitezke. Bezero hauek berritasuna, lana erraztea, pertsonalizazioa, eskuragarritasuna, prezioa eta erabilerraztasuna bezalako ezaugarriak baloratzen dituzte.

## IRAKASLEAK

Irakasleetan ere zentratuko gara, izan ere, proiektua baliagarria izan daiteke irakasleentzat, bada, ikasleei irakasteko beste tresna bat izan daiteke. Honek lana erraztuko du segmentu honetan. Bezero hauek lana erraztea, pertsonalizazioa, eskuragarritasuna eta erabilerraztasuna bezalako ezaugarriak baloratzen dituzte.